




# NAZIOARTEKO TERRORISMOA MUNDU GARAIKIDEAN

MUNDU GARAIKIDEAREN  
HISTORIRAKO UNITATE DIDAKTIKOA

## 1. BATXILERGOA



**"OROIMENA ETA TERRORISMOAREN  
PREBENTZIOA" HEZKUNTZA-  
PROIEKTUA.  
5. UNITATE DIDAKTIKOA**

**ARGITARATZAILEAK**

Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko  
Zuzendaritza Nagusia. Barne Ministerioa

Ebaluaziorako eta Lurralde Lankidetzarako  
Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntza eta  
Lanbide Heziketako Ministerioa

Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako  
Zentroa

Fundación Víctimas del Terrorismo

**TESTUAK**

Jesús Prieto Mendaza

**DISEINUA**

Dr. Drumen

**ARGAZKIAK**

EFE

EPA

POOL

Zumapress

Barne Ministerioaren NIPOa:  
126-20-003-X

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako  
Ministerioaren NIPOa: 847-20-076-3



1. irudia. Haur batek loreak uzten ditu Nizako atentatu jihadistaren biktimen oroimenez, non terrorista batek Frantziako jai nazionala ospatzen ari zen jendetza harrapatu zuen kamioi batekin (2016/07/16). Argazkia: Ian Langsdon, EFE/EPA.





## AURKIBIDEA

“Oroimena eta terrorismoaren prebentzioa” hezkuntza-proiektua zenbait unitate didaktikok osatzen dute, eta terrorismoaren gaia lantzen dute Geografia eta Historia, Psikologia, Mundu Garaikidearen Historia, Filosofia eta Balio Etikoak irakasgaietan oinarrituta.

Unitate hau irakasleek gelan erabil dezaketen baliabide oso bat da, proiektatutako saio bakoitzean garatu beharreko edukia eta amaierako aplikazio didaktikoa baititu, testuliburu batean sartuko liratekeen bezala eta ikasgaiaren programazioan aldaketarik egin gabe.

**04**

### 1. Saioa

Sarrera:  
Zer da terrorismoa?

1. jarduera  
Berria edo zaharra, indarkeria terroristak sufrimendua eragiten du

**10**

### 2. Saioa

Terrorismoaren lau boladak

2. jarduera.  
Izua tresna politiko gisa

**16**

### 3. Saioa

Terrorismo globalaren sorrera

3. jarduera.  
World Trade Center.  
Mundua hunkitu zuen atentatua

**22**

### 4. Saioa

Jihadismoa arabiar udaberriaren ondoren

4. jarduera.  
Espainiar bat Ghazala Gardens hoteleko leherketan

**28**

### Materialak lantzeko orientabideak

**34**

### Erreferentziak

1.

# SAIOA





## SARRERA: ZER DA TERRORISMOA?

Fenomeno terrorista nazioarteko arazo bat da, eta maila ezberdin batean, eta bilakaera historiko desberdin batekin, eragin die kontinente guztietako herrialdeei.

Beste fenomeno sozial konplexu batzuekin gertatzen den bezala, terrorismoari buruzko hainbat definizio daude. Espezialistek azpimarratu ohi dute proiektu politiko jakin bat indarrez inposatzeko tresna baten aurrean gaudela, eta, beraz, aurkariengan eta, oro har, gizartean berean beldur bizia eragitea dela kontua. Hauek dira ezaugarri nagusiak:

### INDARKERIA KLANDESTINOA

Terrorismoak modu sekretuan edo ezkutuan jarduten du justiziaren ekintza saihesteko. Klandestinitateak, aldi berean, taldearen isolamendu eta erradikaltasun handiagoa eragiten du.

### BELDURREZKO GIROA SORTZEA

Terrorismoa izutik datorrela adierazten du hitzaren etimologiak, eta horixe da, hain zuzen ere, baliabide honen bidez eragin nahi dena: beldur bizia aurkarien artean eta, oro har, gizartean.

### HELBURU POLITIKOAK LORTZEA

Terrorismoaren atzean botere proiektu bat dago, indarra erabiliz menderatu nahi den instituzio edo erakunderen baten aurka zuzendua.

### PROPAGANDAREN ERAGINA

Talde terroristek beren atentatuek eragiten duten inpaktua aprobetxatzen dute, komunikabideen bidez duten oihartzuna, beren exijentziak zabaltzeko.

2. irudia. Gizon bat negarrez ari da bere semearen bila, aurreko egunean Afganistango Defentsa Ministerioaren aurka talibanen kamioi-bomba batek eztanda egin ostean (2019/07/02). Argazkia: Hedayatullah Amid, EFE.

Terrorismoak hainbat arlotan eragiten du:

### BIKTIMAK

Nagusiki, eraildako, zauritutako, bahitutako, estortsiotutako eta mehatxatutako pertsonen eragiten die terrorismoak, baita haien inguruneari ere (familia eta lagunak).

### POLITIKA

Terrorismoak printzipio demokratikoak urratzen ditu, parte-hartze politiko aske eta berdinerako aukerak murrizten dituen beldurra sortuz.

### GIZARTEA

Terrorismoak bizikidetzaren hondatzen du, giza eskubide oinarrikoen eraso egiten dielako.

### EKONOMIA

Atentatuek kostu materialak eta segurtasunekoak eragiten dituzte.

3. irudia. Leherketa terrorista batek suntsitutako Boloniako tren geltoki nagusiaren bista orokorra. Argazkia: Keystone Pictures, Zumapress.



Erakunde terroristen lau talde handi bereiz ditzakegu, beren ideologiaren arabera:

### NAZIONALISTA ERRADIKALAK

Europar odoltsuenak eta iraunkorrenak, ordena honetan, IRA (Irish Republican Army, Irlandako Armada Errepublikanoa) eta ETA (Euskadi Ta Askatasuna, Euskal Herria eta Askatasuna) izan dira. Bi kasuetan bere helburu nagusiak separatistak ziren. Behin-behineko IRA (Provisional Irish Republican Army) 1969an jaio zen, eta, IRA Ofiziala bezala, Pazkoko Altxamendua (1916) bezala ezagutzen denetik sortutako IRAREN oinordeko izendatu zuen bere burua. Jarduera 2005ean eten zuen ofizialki, nahiz eta bere behin betiko amaiera 2008an izan.

Behin-behineko IRAk Ipar Irlandak Erresuma Batuaren parte izateari uztea nahi zuen; ETAK, berriz, Euskal Herriaren independentzia bilatzen zuen. ETAK 1968an egin zuen bere lehen atentatu hilgarria, Behin-behineko IRA jaio baino urtebete lehenago. Beraz, bat datoz hastapenetan eta jardueraren punturik gorenean: 1970 eta 1980ko hamarkadetan. ETAREN jarduera terroristaren behin betiko amaieraren iragarpena 2011ko urriaren 20an egin zen.

Europatik kanpo ere izan dira nazionalista erradikalak diren erakunde terroristak, hala nola Sri Lankako Eelam Tamil Askatzeko Tigreak, non estatu tamil propioa ezarri nahi zuten.

### JIHADISTAK

Gaur egun jardunean gehien jarraitzen duen terrorismo mota da. Bere helburua kalifatza bat ezartzea da, lege islamikoaren interpretazio dogmatiko, ortodoxo eta minoritario baten pean. Bere erakunderik ezagunenak 1988an sortutako Al-Qaeda eta 2014tik aurrera protagonismoa hartu zuen Irak eta Levanteko Estatu Islamiakoa (Daesh) dira. Biek eskualde mailako frankiziaz dituzte, Nigerian dagoen Boko Haram kasu, Daeshekin lotua. Eelam Tamil Askatzeko Tigreen antzera, terrorismo jihadistak immolazioa eta sarraski indiskriminatuak bihurtu ditu bere nortasun ikur nagusi.

### EZKER MUTURRA

Kasu honetan, honako erakunde hauei buruz hitz egin behar dugu: GRAPO, Grupos de Resistencia Antifascista Primero de Octubre (Urriaren Leheneko Erresistentzia Talde Antifaxistak), Espainian; Brigada Gorriak Italian; Armada Gorriaren Frakzioa Alemanian eta beste talde txikiago batzuk, betiere ezaugarri komun bat zutenak: indarkeria erabiltzen zuten zelula klandestinoen bidez proletarioen diktadura ezartzen saiatzea. Europatik kanpo ere badaude mota horretako beste erakunde batzuen kasuak, hala nola FARC, Fuerzas Armadas Revolucionarias de Colombia (Kolonbiako Indar Armatu Iraultzailerak), edo Peruko Sendero Luminoso, jada operatibo ez daudenak.

### ESKUIN MUTURRA

Terrorismo mota horren erreferentzia politikoen artean, XX. mendean zehar hainbat herrialdetan gobernatu zuten erregimen autoritario eta faxistak zeuden, Mussolinik Italian, Hitlerrek Alemaniak edo Francok Espainian. Hemen terrorismo ultraeskuindarra BVE (Batallón Vasco Español) edo Triple A (Alianza Apostólica Anticomunista) bezalako erakundee-tan zatituta egon zen, eta, batez ere, trantsizioaren urteetan lortu zuen protagonismoa, demokrati-zazio-prozesua ezegonkorta nahi izan zutenean, 1977an eskuin muturreko komando bat Comisiones Obreras (CCOO) erakundeko abokatu laboralisten bulego batean sartu zenean gertatu zen bezala (bost pertsona erail zituzten, eta beste lau zauritu). Garai horretakoak dira, halaber, eskuin-muturraren beso armatua izan zen Guerrilleros de Cristo Rey izeneko taldearen jarduera terroristak, frankismotik demokraziarako trantsizioaren lehen urteetan burutuak. Data horietan beretan, zehazki 1980an, Europar izandako sarraski terrorista handienetako bat gertatu zen, ultraeskuindar zelula batek Bolognako (Italia) tren geltokian eragindakoa, 85 hildako utzi zituena.





4. irudia. Ipar Irlandako terrorismoaren urterik odoltsuena 1972 izan zen, 500 pertsona inguru erail zituztenean, horietatik gehienak Behin-behineko IRAren esku. Argazkia: Keystone Pictures, Zumapress.

Jane 's Terrorism and Insurgency Centre erakundearen datuen arabera, hileroko 900 atentatu izaten dira, batez beste. Reinaressek (2015) dio mundu mailako 10 atentatutik bederatzi Hegoaldeko Asian, Ekialde Ertainean eta Afrikako iparraldeko erdialdean gertatzen direla gaur egun. Funtsean eta forman desberdintasun ugari dituzten arren, esan liteke, halaber, itxuraz hain ezberdinak diren taldeek (FARC, Al-Qaeda, Daesh, Irak, ETA eta edo Boko Haram) ezaugarri komun batzuk dituztela. Horrela, horietan guztietan pentsamendu fanatizatu bat agertzen da, desberdina den hura, etsai gisa eraikia, borrokatzera eta deuseztatzerara daramana.

Talde terrorista guztietan erantzukizun, diskurtso eta pentsamendu batez hitz egin daiteke, ezberrik gabe sektarioak, beren mitoetan, errituetan eta liturgietan oinarrituta in-

darkeriazko talde oren jardura sostengatu eta elikatzen dutenak, hori guztia ustezko borroka askatzaile bati atxikitako narrazio erromantiko baten zelofan gisa. Diskurtso hori izango da talde terroristen teoria bortitzenak sortu, zabaldu eta praktikan jartzeko bidea emango duen haztegia.

Indarkeria terroristaz hitz egiten denean, pentsatu ohi da pistola batekin tiro egiten dutenek, lokal batean bomba bat jartzen dutenek edo metro-geltoki batean bere burua immolatzen dutenek baino ez dutela erabiltzen. Jardura terroristak beste arma asko erabiltzen dituzte gizartean izu-giroa sortzeko: isilmandatariak, kaptadoreak, prestatzaileak, txibatoak, beldurra, mehatxua, estortsioa, pintadak, seinatzea... Horiek ere beldurtzeko eta gizartea kontrolatzeko arma eraginkor bihurtzen dira.



## 1. JARDUERA

### BERRIA EDO ZAHARRA, INDARKERIA TERRORISTAK SUFRIMENDUA ERAGITEN DU

Mende honetan egindako zer atentatu terrorista motak eragin dizu inpaktu gehien? Zergatik? Atentatu terrorista bat jasan duen pertsonaren bat ezagutzen duzu? Gai honi buruzko informazioa bilatzea proposatzen dizugu (modu pertsonalean edo elkarlaneko eta lankidetzako lantaldean), eta indarkeriaren egoerari eta ondorioei buruzko idatzizko azalpen bat egitea. Bildutako datuak ordenatzeko, lagungarria izan daiteke taula hau.

BIKTIMAREN IZENA	JASANDAKO INDARKERIA MOTA	ATENTATUAREN LEKUA	EKINTZA TERRORISTAREN ONDORIOAK

Erakusketa paperean edo formatu digitalean egin daiteke. Azkenik, sortutako datu, ekarpen, proiektzio eta azalpenekin ondorio batzuk aterako dira ikasgelan. Ondorio horiek horma-irudi gisa jar daitezke ikasgelan, edo bideo edo PPT formatuan proiektu daitezke.

2.

# SAIOA





## TERRORISMOAREN LAU BOLADAK

Bigarren saio honetan, terrorismo modernoaren hastapenetatik gaur egunera arteko ibilbidea egingo dugu. Ez da fenomeno berria, sustrai sakonak ditu eta XIX. eta XX. mendeetan izan zituen ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu.


Terrorismoa gaur egungo historian zehar bolada moduan agertu da, eta horietako bakoitzak batez beste 35 edo 40 urte iraun du. Ziklo horiek ez diote soilik herrialde bakar bati eragin, baizik eta aldi berean herrialde bati baino gehiagori, eta indarkeriaren areagotze-fase bat erakusten dute, eta, ondoren, gainbehera-fase bat, desagertu arte. David C. Rapoportek, Kaliforniako Unibertsitateko irakasle eta terrorismo ikasketetan aitzindariak, lau terrorismo bolada bereizten ditu, ez beti jarraian, batzuen amaiera beste batzuen hasierarekin gainjartzen baita. Honako hauek dira bolada horiek definitzen dituzten elementuak: sortu ziren testuinguru politikoa, haien orientazio ideologiko nagusia, protagonistak izan ziren erakundeak, atentatu gehien jasan zituzten tokiak, taktika nagusiak eta helburuak.

Lehen terrorismo bolada "anarkista/nihilista" izan zen, eta XIX. mendearen azken herenean sortu zen. Langileen Nazioarteko Elkartearen (LNE) gainbeherak berehalako iraultza itxaropenak zapuztu zituen. Testuinguru horretan, muturrekoenek erabaki zuten indarkeria formula baliagarria zela Estatuari eraso egiteko eta klaserik gabeko gizartea lortzeko. Epealdi horretan ugariak izan ziren gertaeraren aldeko propaganda eta magnizidio saiakerak. Hala, sistemaren krisia eragiteko asmoarekin, bata bestearen atzetik etorri ziren goi kargudun politikoen aurkako atentatuak. Errusian, Naródnaia Vólia-ko (Herriaren Borondatea) kideek Alexandro II.a tsarra hil zuten (1881). Espainian, inspirazio anarkista zuten terroristek Berrezarkuntza garaiko Gobernuako hiru presidente hil zituzten: Antonio Cánovas del Castillo (1897), José Canalejas (1912) eta Eduardo Dato (1921). Humberto I.a Italiako erregearen (1900) eta William McKinley Estatu Batuetako presidentearen (1901) hilketen egileak ere anarkistak izan ziren. Bolada honen garapenean lagundu zuten faktore tekniko batzuk egon ziren, dinamita 1866an aurkitu izana kasu, bere suntsipen ahalmena eta, beraz, beldurra sortzeko gaitasuna zela medio, nahiz suzko armak erabiltzen jarraitu zuten, pistola edo errebolberra kasu. Hala ere, erasotzaileek ez zituzten azken helburuak lortu.

Sarritan, ondorengo errepresioak indarkeria-zikloa itxi zuen indarkeria jasan zuen herrialde bakoitzean, eta XX. mendeko

5. irudia. Munduko liderrak bat eginda manifestatzen Parisen, Charlie Hebdo aldizkari satirikoaren aurkako atentatu terroristaren biktimei ohore egiteko (2015/01/11). Argazkia: Julien Warnand, EFE.





6. irudia. Aldo Moro Italiako lehen ministro ohiaren eta Demokrazia Kristauaren liderraren argazkia, 1978ko apirilaren 20koa. Brigada Gorriek bahitu eta erail egin zuten azkenean. Argazkia: EPA.



lehen hamarkadan terrorismo-bolada hori gainbeheran sartua zen jada.

Bigarren terrorismo bolada Lehen Mundu Gerraren inguruan sortu zen (1914-1918), eta bere inspirazio ideologiko nagusia nazionalismoa izan zen. Hainbat faktorek azaltzen dute haren garapena. Batetik, mugimendu separatisten ugartzea, autodeterminazio eskariaren mende zeudenak Europako estatu plurinazionalen haustura eragiteko. Bestetik, gerrarteko Europan eman zen totalitarismoen gorakada, zeinu komunistakoak zein faxistakoak, eta demokrazia liberalen ahultze paraleloa. Bolada honek aurrekari bat izan zuen: Austrohungariar Inperioaren ko-roaren oinordekoa zen Francisco Fernando artxidukearen hilketa, serbiar erradikal baten esku. Gertaera hori 1914an jazo zen Sarajevon, eta Lehen Mundu Gerra piztu zen.

Segur aski, fase honetako erakunderik ezagunena, eta gehien iraun duena, IRA da, Irlandako Armada Errepublikarra, 1916an jaioa eta ondoren alderdi ezberdinetan banatuko zena, horien artean, jada aipatu den Behin-behineko adarra. Bere helburua Irlandako uhartearen independentzia zen, une horretan britainiarren menpe zegoena. Baina handik urrun, Balkanetako eskualdean, Jugoslaviako erresumak ere terrorismo nazionalista ezberdinen oldarraldia jasan zuen: serbiarra, kroaziarra eta mazedoniarra. 1920ko eta 1930eko hamarkadetan Italian edo Alemanian espazio publikoaz jabetu ziren mugimendu totalitarioen kasuan, ezin da zelula klandestinoetan egituratutako erakunde terrorista klasikoez hitz egin, beldurrezko giro batez baizik, erakunde paramilitarren bidez ezarria. Erakunde horietako kideak uniforme jantzita aritzen ziren, hala nola eskudrista faxistak Italian edo Sturmabteilung, SAK (nazien eraso-atala) Alemanian. Bi kasuetan boterea lortu zuten, eta bertan iraun nahi izan zuten, baina hurrenez hurren Mussolini eta Hitler buru zituzten beren beldurrezko erregimenek gutxi iraun zuten, biktima asko eragin arren. Aliatuek garaitu zituzten Bigarren Mundu Gerran.

Hirugarren terrorismo bolada "ezker berria" deiturikoaren gorakadari lotutakoa izan zen. Bigarren Mundu Gerra amaitu ondoren (1939-1945), Europa demokratikoak egonkortasun politikoa, hazkunde ekonomikoa eta lasaitasun sozial erlatiboa ezagutu zituen, 20 urte inguru iraun zuena. 1960ko hamarkadaren amaieratik aurrera, terrorismoak, iraultzaile zein kontrairaultzaile motakoak, hainbat herrialdetan jo zuen berriro aldi berean: Espainian, Erresuma Batuan, Italian edo Alemanian. Eferbeszentzia sozialeko testuinguru batean, berriz ere erradikalenean bidea hartu zuten eta "hiriko gerrillak" zeritzotenak sortu zituzten, hau da, erakunde terrorista berriak. Ezker muturreko inspiraziokoak, hala nola Brigada Gorriak Italian eta Armada Gorriaren Frakzioa

Alemanian (RAF), gainbeheran sartu ziren 1980ko hamarkadan, babesik ez zutelako. Herritarren gehiengoak demokraziaren eta haren erakunde alde egiten zuen. Hala ere, funtsean nazionalistak ziren beste erakunde batzuek, hala nola ETAK Espainian edo IRAren adarrek Ipar Irlandan, bizirik luzaroago irautea lortu zuten, XXI. mendera arte. Horien aurrean ultraeskuindar taldeak sortu ziren, hala nola Ordine Nuovo Italian, Alianza Apostólica Anticomunista (Triple A) Espainian edo talde lealistak Ipar Irlandan.

Tamalez, giza eskubideen urraketa hori munduaren zati handi batean gertatzen da, baita zugandik oso gertu ere. Datu beldurgarri bat dago: Espainian bakarrik, ia 1.500 lagunek galdu dute bizia 1960tik ekintza terroristen ondorioz.

Terrorismoak eragin zuzen eta negatiboa du giza eskubideen egikaritzan; bereziki, bizitzeko eskubidean, askatasunean edo osotasun fisikoan, baina, horrez gain, erakunde demokratikoak, herrialdeen arteko harremanak eta garapen sozial eta ekonomikoa ezegonkortzen ditu. Guztion arazoa da, egungoa eta larria.

## 2. JARDUERA

### IZUA TRESNA POLITIKO GISA

**A FASEA.** 2. saioko testua aldez aurretik banaka irakurri ikasgelan edo etxean. Ondoren, ahal dela, gehienez bost laguneko lau lan-taldetan jarriko dira ikasleak. Talde bakoitzak jarraian eskaintzen diren testuetako bat aukeratu behar du, eta hari buruzko talde-lan labur bat garatu. Nahitaez jaso behar dituzte beren lanean honako alderdi hauek:

Zer terrorismo boladari dagokio?

Nola gertatu zen atentatua, eta zein testuingurutan?

Zer ondorio izan zituen, bai giza mailan, bai gizarte mailan?

#### 1. TESTUA

**William McKinley** 1897an bihurtu zen Ameriketako Estatu Batuetako hogeita bosgarren presidente. 1901eko irailaren 6an, bera eta bere emaztea, Ida Saxton, Buffaloko (New York) Erakusketa Panamerikarrera joan ziren. Han, Musikaren Tenpluan zegoen bitartean, jatorri poloniarreko Leon Czolgosz anarkistak tiro egin zion eskuineko eskuan ezkutatuta zeraman errebolberrari. Tiro batek presidentearen sorbaldan jo zuen, eta beste batek haren sabelaldean. Irailaren 14an hil zen gangrenaren ondorioz.

#### 2. TESTUA

Sarajevoko atentatua, mundu mailan hala esaten zaio 1914ko ekainaren 28an Sarajevon, Bosnia eta Herzegovina probintziaren hiriburuan, Austrohungariar Inperioaren koroaren oinordekoaren, **Austriako Frantzisko Fernando** artxidukearen, eta haren emaztearen, Sofia Chotek dukesaren, hilketari. Atentatu terrorista Gavrilo Princip nazionalista serbiarrak egin zuen, Bosnia Austria-Hungariatik emantzipatzea helburu zuen mugimendu batek bultzatuta, zeinak Serbiako Erresumako inteligentzia zirkuluen eta militarren babesa izan baitzuen.

#### 3. TESTUA

1996ko ekainaren 7an, **Jerry McCabe** polizia, Ben O'Sullivan lankidearekin batera, Adare-ko (Irlandako Limerick konderrria) Posta-furgoneta bati eskolta-lana egiten hasi zen. Furgonetak zeraman dirua lapurtu nahi zuen Behin-behineko IRAren komando batek kalashnikov batekin tiro egin zuen. Ben larri zauritu zuten, eta Jerry hil egin zuten. Jerryri gutxi geratzen zitzaion erretiroa hartzeko.




#### 4. TESTUA

2017ko ekainaren 3an, Khuram Butt, Rachid Redouane eta Youssef Zaghba auto bat gidatzen ari ziren Londresko zubian, oinezkoak harrapatuz. Ondoren, ibilgailutik jaitsi eta oinezkoei labanaz erasotzen hasi ziren Borough Marketetik gertu. **Ignacio Echevarría**, Erresuma Batuko hiriburuan bizi zen espainiar batek, komandoko kideak neska bati eta hura laguntzera zihoan polizia bati eraso egiten ikusi zituen. Zalantzarik gabe, Ignaciok bere arma bakarrarekin egin zien aurre terroristei: monopatin batekin. Terroristek Estatu Islamikoaren izenean egindako labankaden ondorioz hil zen Ignacio. Bederatzi lagun hil eta 48 larri zauritu zituzten atentatu horretan.

**B. FASEA.** Taldekako lana amaitu ondoren, irakasleak talde bakoitzaren bozeramaile bati eskatuko dio bere lanaren emaitza azaltzeko eta klaseari aurkezteko. Aurkezpena ahozkoa izango da, eta, nahi izanez gero, beste euskarri batzuk izango ditu: arbela, arbel digitala, horma-irudiak, bideoak... Aurkezpenak grabatu egin daitezke, eta, horrela, ikasle guztiak eskuragarri izango dituzte gelako plataforman edo blogean. Bozeramaile guztien azalpena amaituta, irakasleak gogora ekarriko du jardueraren sarreran ikusitakoa eta nola terrorismoaren bertsio ezberdinek izua erein duten tresna politiko gisa, gorrotoaren diskurtsoan eta pentsamendu fanatikoan oinarrituta. Bukatzeko, desiragarria da ikasleen arteko eztabaida piztea, eta hori ere grabatu egin daiteke, eta gero plataforma berean zintzilikatu.

7. irudia. Poliziak Gavriilo Princip, Austriako Frantzisko Fernando artxidukearen hiltzailea, atxilotu du.  
Argazkia: Hilary Jane Morgan, Zumapress.





3.

SAIOA





## TERRORISMO GLOBALAREN SORRERA

XXI. mendeko terrorismoak jaiotze data bat du: 2001eko irailaren 11. Egun horretan, Al-Qaedako (euskaraz, Oinarria) jihadistak talde batek lau hegazkin zibil bahitu zituen Ameriketako Estatu Batuetan (AEB): horietako bi New Yorkeko dorre bikien aurka joarazi zituzten; beste bat, Washingtongo Pentagonoaren aurka; eta laugarrena, bidaiariak bahitzaileen kontra matxinatu eta ontziaren kontrola galdu ondoren, mendian erori zen. Operazio terroristak konplexu haren balantzea hiru mila hildako baino gehiago eta sei mila zauritu izan ziren. Zeharkako eta epe ertaineko balantzea bi gerraren hasiera izan zen -bata, Afganistanen, eta, bestea, Iraken-, dozenaka mila hildako utzi zituen eta terrorismoa hedatu zuena.

Indarkeria jihadistaren ezaugarrietako bat masiboki erailtzeko borondatea da, I-11ko atentatuez gain, beste hainbat atentatutan islatu dena: Madril 2004ko martxoaren 11n egindakoak (193 hildako); Londresen 2005eko uztailearen 7an gertatutakoak (56 hildako); Camp Speicherren (Irak) 2014ko ekainean izandakoak, 1.600 biktimarekin; Boko Haram 400-500 pertsona hil zituen Bornoko Estatuan (Nigeria) egindako sarraskian 2014ko ekainaren 3an eta 4an; 2016ko uztailearen 3an Bagdaden egindako atentatua (325 hildako) edo 2017ko abuztuaren 17an Bartzelonan eta Cambrilsen egindako atentatuak (16 hildako).

Irailaren 11ko atentatuek erakunde terroristak bat, Al-Qaeda, eta haren sortzaile eta liderra, Osama Bin Laden, ezagutzera eman zituzten mundu osoaren aurrean. Ordura arte oharkabean pasatu ziren iritzi publikoarentzat, nahiz eta talde hori hamahiru urte atzera sortua izan eta eraso garrantzitsuak egin, ehunka biktima utzi zituztenak.

Al-Qaedaren eta inspirazio jihadistak beste talde terroristak batzuen historia ezin da ulertu Afganistango oraintsuko historia ezagutu gabe. 1979an, SESBeko tropak herrialdean sartu ziren, barne estatu kolpe baten ondoren Kabul izarri zen gobernu prosobietiko bati babesa emateko. Sobietar armadaren presentziak bertako biztanleriaren zati handi baten gaitzespena eragin zuen, baita beste herrialde batzuen inplikazioa ere (bereziki AEB, Pakistan eta Saudi Arabia), armekin, diruarekin eta trebakuntzarekin lagundu baitzieten SESBeko tropen aurka borrokatzen zirenei. Hainbat herrialdeetatik etorritako milaka musulman, motibazio erlijioso baten bultzatuta, Afganistanera joan ziren okupatzaileei aurre egitera. Hamarkada bat igaro ondoren, 1989an, SESB garaituta erretiratu zen Asiako lurraldetik.

8. irudia. Terrorista jihadistek bahitutako hegazkin komertzial bat World Trade Centerreko dorre bikietako baten kontra jo baino pixka bat lehenago (New York, 2001eko irailaren 11). Argazkia: Seth McCallister, EPA.





9. irudia. Osama Bin Laden saudiarabiarra irudiaren erdian, Al-Qaedako beste buruzagi batzuek lagunduta: Ayman Al Zawahirik (ezkerrean) eta Mohammed Atefek (eskuinean). Argazkia: EPA.

Afganistanera borrokatzera joan zenetako bat Osama Bin Laden izan zen, Saudi Arabiako familia aberats bateko kidea, zeinak 1988an Al-Qaeda (oinarria) izeneko erakunde bat sortu baitzuen, borrokalari eskarmentudun asko bildu zituen. Bin Ladenekin batera, talde honen sorrerako unean Ayman Al Zawahirik zegoen, gerora Al-Qaedaren buru zen Saudi Arabiako buruzagiaren ondorengoa izango zena. 1998ko otsailaren 23an, Al-Qaedak eta inspirazio jihadistako beste talde batzuek aliantza bat sortu zuten, Judutarren eta Gurutzatuen aurkako Jihada egiteko Munduko Fronte Islamikoa bezala bataiatu zutena, ondorengo urteetako

atentatuak burutu edo bultzatu zituen nazioarteko sare terroristak bihurtu zena.

Al-Qaedak etsai berriak bilatu zituen. Lehenik eta behin, xaria edo lege islamikoa aplikatzen ez zuten herrialde musulmanetako gobernuak jomugan jarri zituen, eta Bin Ladenek eta beretarrek sustatzen zuten erlijioaren ikuspegi erradikala ez defendatzeagatik "apostatatzat" jo zituen gobernu horiek. Bigarrenik, "urruneko etsaitzat" jo zutena seinlatu zuten helburu gisa, batez ere AEBk ordezkaturia, baina baita mendebaldeko herrialdeek ere.

Nahiz eta Al-Qaedaaren jaiotza azken urteotako terrorismoaren historian puntu garrantzitsua izan eta jihadismo globalaren agerpena ekarri, talde hori sortu aurretik beste eraso batzuk egin ziren jihad izenaren atzean babesten zen erlijio-estremismo islamista baten izenean. Espainian bertan, 1984tik badaude muturreko inspirazio hori duten terroristak<sup>1</sup>. Gertakariarik larriena 1985eko apirilaren 12an izan zen, Torrejón de Ardozeko El Descanso jatetxean boba batek eztanda egin, eta 18 hildako eta laurogei zauritu eragin zituenen. Jihad Islamikoa izeneko talde batek bere gain hartu zuen atentatua. Bi hilabete lehenago Atenasko hotel baten aurka egindako beste atentatu baten erantzule egiteko erabili zuten izen bera. Hotel hori, El Descanso jatetxea bezala, AEBeko militarrek erabiltzen zuten base batetik gertu zegoen. Jihad Islamikoaren izenak, 1983an, AEBetako eta Frantziako armadek Beiruten zituzten kuarteren aurkako erasoak bere gain hartzeko ere balio izan zuen, ehunka hildako eragin zituztenak (306 biktima zenbatetsi ziren soldadu iparramerikarren eta frantziarren artean, eta langile zibilen artean). Espainiako polizia irandar eta libanoar jatorria zuten xiita erradikal batzuen pista ikertu zuen, Jihad Islamikoaren bandera Hezbollah (Jainkoaren Alderdia) taldeak erabili baitzuen, baina ez zituzten atentatuaren egi-leak topatu.

Afganistango gerraren amaierak atzerriko borrokariaren zati handi bat desmobilizatzea eragin zuen, eta beren jatorrizko herrialdeetara itzuli ziren, horien artean Aljeria. Jihadista horiek bere herrialdean bertan hartu zituzten armak 1992an, hauteskunde orokorren bigarren itzulia bertan behera utzi zuen estatu-kolpearen ostean, lehen itzulian Salbaziorako Fronte Islamikoak garaipena lortu ondoren. Gertaera horrek Aljeriako hainbat talde jihadista agerrarazi zituen, eta gerra zibila eragin zuten, hamarkada bateko gatazkan zehar dozenaka mila hildako utzi zituenen. Estimazio txikiaren arabera, ehun mila dira hildakoak; beste kalkulu batzuek, berriz, bikoiztu egin dute datu hori. Talde Islamiko Armatua (TIA) Aljerian lan egin zuten erakunde jihadisten artean nabarmenena izan zen, eta, ondoren, zatitutako talde bat gehitu zitzaion, Predikaziorako eta Borrokarako Talde Salafista (PBTS), geroago Magreb Islamikoaren Al-Qaeda (MIAQ) bihurtuko zena. TIAk Frantziako lurraldera eraman zuen bere gerra 1994an eta 1995ean, eta hamar hildako eta 200 zauritu baino gehiago eragin zituzten atentatuekin. XXI. mendeko lehen urteetan Europan terrorismo horren beste adierazpen batzuekin gertatuko zenaren aurrerapen bat izan zen.

Luis de la Cortek (2018) 2 jihadismo globalaren hiru fase bereizi ditu: lehen epealdia 1988an Al-Qaeda sortu zenetik 2001eko iraileko atentatuetaraino hedatzen da. Bigarren etapa 2001 eta 2010 urteen artean gertatu zen, eta honako

ezaugarri hauek ditu: "Al-Qaedaekin edo haren ideologia-proiektuarekin lotutako estatuz kanpoko aktoreak mundu osoan ugartu ziren". Jihadismo globalaren hirugarren epealdia "arabiar udaberria" deiturikotik aurrera hasten da, 2011tik aurrera, eta aldaketa erradikalak eragin zituen Tunisia, Egipto, Libia eta Siria bezalako herrialdeetan.

Lehen epealdiaren barruan kokatu behar dira Al-Qaeda, 1998ko abuztuan, Kenyako eta Tanzaniako hiriburuetan AEBek zituzten enbaxaden aurka egindako atentatuak; berrehun hildako baino gehiago eta lau mila zauritu utzi zituzten. Garai honetan sortu ziren ere lehen talde jihadistak Yemenen, etxera itzulitako Afganistango beteranoek elikatuta. Arabiar Penintsulako Al-Qaeda (APAQ) bihurtu ziren azkenean, Bin Ladenek sortutako erakundearen adar indartsuenetako bat.

2001eko irailaren 11ko atentatuek AEBen berehalako erantzuna ekarri zuten, hilabete eskas geroago Afganistani eraso baitzion. Al-Qaeda herrialde hartan zuen bere basea, zuzendaritza bertan zegoen gerizatuta, boterean zeuden talibanen babespean, eta bertatik planifikatu zen New York eta Washingtonen aurka hegazkinekin izandako atentatua. Iraken aurkako bigarren gerra bi urte geroago hasi zen, Bagdadeko gobernuaren aurka zuzendutako akusazio oinarri gutxiakoekin. Bigarren gatazka horrek jarduera jihadisten biderkatzeari ateak ireki zizkion, bai Irakeko lurraldean, bai handik kanpo, eta haren ondorioak gaur egun ere arrastaka ari dira.

Irailaren 11tik aurrera hasitako epealdian, Al-Qaeda eta bere buruzagiek Afganistan utzi behar izan zuten, eta soldadu ugari galdu zituzten. Egoera berrira egokitzeko, Luis de la Corteren hitzetan, "ingurune lauso eta geometria aldakorreko mugimendu transnazional bat" eratu zen. Mugimendu hori Asia erdialdetik eta hegoaldeetik, Ipar Kaukasotik, Ekialde Hurbiletik, Afrika iparralde osotik, Mendebaldeko Afrikatik eta Afrikako Adarretik hedatu zen. Haren izenean edo haren lurralde frankizien izenean ehunka atentatu egin dira.

<sup>1</sup> Gertakari-zerrenda bat Fontechan (2004) aurki daiteke.

<sup>2</sup> De la Corte (2018). Interneten eskuragarri: [http://www.memorialvt.com/wp-content/uploads/2018/03/Informe04\\_180212.pdf](http://www.memorialvt.com/wp-content/uploads/2018/03/Informe04_180212.pdf)



### 3. JARDUERA

## WORLD TRADE CENTER. MUNDUA ASTINDU ZUEN ATENTATUA

Helburuak:

**Mundua astindu zuen eta terrorismo global mota horren aintzat hartzean mugarri bat izan zen atentatuaren inguruan ikertu eta informazioa bildu.**

**Terrorismo orok eragiten duen minaz eta bidegabekeriaz jabetu, kasu honetan jatorri erlijioso jihadistakoa.**

**Biktinekiko enpatia jarrera sustatu, bai atentatu honi bai antzeko beste batzuei dagokienez.**

**Atentatu horrek nazioarteko ordenan duen garrantziaz eztabaidatu eta argudiatu, eta, azkenik, gauza bera egin biktimengan izan dituen ondorio pertsonal eta familiarrei buruz.**

3. saioko testua irakurri ondoren, talde-lana egingo da, lankidetzan eta elkarlanean. Hainbat dokumentazio-iturritara joz egin daiteke, baina bilaketa bat Internet bidez egitea gomendatzen da, gaitasun teknologikoa eta digitala ere lantzeko. Informazio garrantzitsurik aurkitzen ez bada, BBCren esteka hau iradoki dezakegu:

<https://www.bbc.com/mundo/noticias-45479565>

Edo dokumentazio historikoko plataformetako beste batzuk, hala nola:

<https://prensahistorica.mcu.es/es/inicio/inicio.do>

Bost laguneko taldeak osatuko dira. Horietako bakoitzak irailaren 11ko atentatuei buruzko informazioa bilatzeari ekingo dio, eta aztertzea egokitu zaion alderdiari buruz txosten labur bat egingo du. Bost pertsonako talde bakoitzak honako puntu hauek landu beharko ditu:

Uneko nazioarteko testuinguru politikoa.

Talde terrorista egilea.

Gertaerak nola jazo ziren.

Motibazioak eta aldarrikapenak.

Biktimak eta ondorioak mundu mailan.

Horretarako, "Folio Birakaria" izeneko lankidetza-teknika erabiliko dugu. Irakasleak zeregin bat esleitzen die oinarritzko taldeei (hitz-zerrenda bat sortzea, ipuin bat idaztea, gai jakin bati buruz dakizkiten gauzak zerrendatzea beren aurretiazko ideiak ezagutzeko, irakurri duten testuaren edo ikasten aritu diren gaiaren funtsezko ideia bat laburbiltzen duen esaldi bat egitea, etab.), eta taldekide bat folio "birakari" batean idazten hasten da bere zatia edo ekarpena. Ondoren, alboko kideari pasatzen dio, erlojuaren orratzen norabideari jarraituz, bere zereginaren zatia folioan idatz dezan, eta horrela hurrenez hurren, taldeko kide guztiek zereginaren azken ebazpenean parte hartu arte. Ondoren, tutoreari emango zaio.

Jarduera amaitzeko, taldeari eskatuko dio atentatu horren biktimek jasandako sufrimenduari buruzko iritzia eman dezala. Irakasleak eztabaida dinamiza dezake horrelako galderak sartuz: atentatuak testuinguru soziopolitikoagatik eta gertatzen diren lekuagatik desberdinak diren arren, sufrimendua desberdina dela uste duzu? Berdinak al dira biktima guztiak?

10. irudia. Irailaren 11ko biktimen omenez atentatu horien urteurren batean utzitako loreak eta argazkiak.  
Argazkia: Justin Lane, POOL.





4.

SAIOA



## JIHADISMOA ARABIAZ UDABERRIAREN ONDOREN

Tximeleta efektua, zeinaren arabera planetaren mutur batean animalia honen hegaldiak beste puntan urakan bat eragin dezakeen, errealitate bihurtu zen mundu arabiarrean 2011n. Tunisian herritar ezezagun bat protagonista izan zuen tokiko gertaera batek aldaketa politiko iraultzaileen segida bat sortu zuen hainbat herrialde arabiarretan. 2010eko abenduaren 17an, fruta-saltzaile batek bere burua bonzo erara erre zuen, poliziak merkatu batean saltzen zuen eta bizimodua ateratzeko erabiltzen zuen salgaia konfiskatu zuelako. Gainera, tratu txarrak eman zizkion. Minduta eta bere ondasunez gabetuta, Mohamed Bouazizik bere buruari su eman eta hil egin zen urtarrilaren 4an.

Bouaziziren zorigaitzak herri-matxinada bat eragin zuen, eta, egun gutxiren buruan, Ben Ali presidentea boteretik bota zuen, azken 24 urteetan herrialdea gobernatzen zuena. Tunisiako adibideak domino efektua eragin zuen, eta berehala hedatu zen hainbat herrialde arabiarretan. Libian, beste herri matxinada batek, Gadafi koronelaren erregimenarekin amaitu zuen, zeinak 42 urte zeramatzan boterean; Egipton, berriz, Arabiar Udaberriak aurretik eraman zuen Hosni Mubarak, zeinak azken hiru hamarkadetan etenik gabe gobernatu baitzuen. Gadafi matxinadan hil zen, eta Egipton Anaia Musulmanak hauteskunde batzuen ondoren iritsi ziren boterera, nahiz eta bi urteren buruan euren gobernu armadak kendu zuen. Protestak izan ziren, halaber, Yemenen, Aljerian, Marokon, Omanen, Bahrainen eta Sirian. Matxinadetan sistema demokratiko osoak ezartzea eskatzen zutenen protestak eta erregimen islamisten aldeko beste sektore batzuenak elkartu ziren.

Aldaketa politikoekin batera, hainbat talde jihadistek eragindako indarkeria-fenomenoak agertu ziren, eta talde horiek herri-matxinada legitimoek eragindako desordena aprobetxatzen saiatu ziren. Tunisian, sistema demokratiko bat finkatu zen herrialde bakarrean, Al-Qaedaren eta Daeshen filialek jardunean dihardute. Herrialde honek 2002an Djerba uharteko sinagogaren aurkako atentatu bat izan zuen, non 22 hildako egon ziren, gehienak turistak. Atentatu hori enpresaburu batek finantzatu zuen Espainiatik, eta beharrezko dirua bidali zuen Al-Qaedara Logroñoko mintzaleku baten bidez. 2015ean Al-Qaedaren filialak beste atentatu bat egin zuen Bardo Museoarean aurka, 19 hildako utzi zituen, horietako bi Bartzelonako bizilagunak.

Egipton Estatu Islamikoko edo Daesheko frankiziak eta Anaia Musulmanak boteretik kanporatu ondoren jaiotako siglak jardunean aritu dira urte hauetan.

*Kazetari bat Tunisiako Bardo Museoa bala-zuloz betetako gune bat ikusten ari da.  
Argazkia: Mohamed Messara, EFE.*



Hala ere, terrorismo jihadistak Libian eta Sirian izan du presentzia eta jarduera handiena. Gadafiren erorketak botere egitura komunik gabe utzi zuen Ipar Afrikako herrialdea, hiriak eta baliabide ekonomikoak eskuratzeko lehian dabilzan talde armatuek kontrolatutako lurraldeetan banatuta. Libian Al-Qaedaren eta Daeshen antzeko talde jihadistak jarri dira, eta handik beren mehatxuak hedatzen dituzte inguruko herrialdeetara, Tunisiara edo Sahel ingurura, batez ere Malira. Libiako botere egituren gainbeherak gudarosteko armategiak kontrolatik kanpo utzi zituen. Talde terrorista ugari armatzeko balio izan dute, eta jihadismoa Sahararen inguruko herrialde guztietara hedatzen lagundu du, han talde ugari aritzen baitira; talde nabarmenena Magreb Islamikoko Al-Qaeda da (MIAQ). Maliren kasuan mehatxua hain izan zen muturrekoa, 2013an Frantziako tropen esku hartzea beharrezkoa egin zela herrialdea talde horien kontrolpean gera ez zedin.

Afrikan, Nigeriako kasua ere aipatu behar da, non Boko Haram taldea jardunean aritzen den (hausu hizkuntzan "mendebaldeko hezkuntza bekatua da" esan nahi du). 2009an sortu zen, eta ondoren Daeshi leialtasuna zin egin zion. Eratu zenetik hogeita mila biktima inguru eragin ditu, eta bi mila bahiketa baino gehiago egin, ez bakarrik Nigerian, baita inguruko herrialdeetan ere, Kamerunen eta Txaden kasu. Bizia da, hala-

ber, Afrikako Adarrean gertatzen den jarduera terrorista, non Al Qaedaren (As Shabab) antzeko talde batek eta Daeshen jarraitzailea den beste batek jarduten duten.

Sirian, Arabiar udaberriak eta gobernuak ezarritako erreprezioak gerra zibila eragin zuten, statu quo-aren defendatzaileak eta Damaskoko erregimenarekin pozik ez zeudenak aurrez aurre jarri zituena, eta laster talde jihadistak sartu ziren bertan. Lehenengoa Al-Qaeda izan zen, eta 2011n filial bat sortu zuen Al Nusra Frontea izenarekin. Al Nusra lehen borrokalariak Iraketik zetozen, non Al-Qaedako frankizia batek jarduten zuen, 2003an AEBetako tropei aurre egiteko antolatuz zena. Lehenik, Monoteismorako eta Jihaderako Erakundea deitu zen; ondoren, Al-Qaeda Bi lbaian herrialdean bezala izendatu zuen bere burua; 2006an, Irakeko Estatu Islamikoa izatera pasa ziren. Talde horretako buruzagiak, Abu Bakr al Bagdadik, Siriari aurre egiteko erabakia hartu zuen Al-Qaedaren zuzendaritzaren iritzia kontraria (izan ere, Al Nusra Frontea jada jardunean ari zen bertan). Erabaki horrek bi erakundeen arteko haustura eragin zuen. Al Bagdadiren taldeak Saddam Husseinen armadako militar asko sartu zituen bere lerroetan, Irakeko eta Levanteko Estatu Islamikoa (Daesh) bihurtu zen 2013tik aurrera, eta, ondoren, deitura laburtu zuen: Estatu Islamikoa.

12. irudia. Siriako Daesh taldeko kideak indar-erakustaldia egiten (2015/08/25). Argazkia: Ho, Zumapress.



Talde honen arrakastek lurralde handi bat kontrolatzera eraman zuten, non Daeshak estatu eraginkor baten boterearen gisa jokatzeko zuten, nazioartean inongo aitortzarik ez izan arren. Daesha Britainia Handiaren hedaduraren baliokidea kontrolatzera iritsi zen. Irakeko Mosul hiria hartu ostean, Al Bagdadik kalifa izendatu zuen bere burua.

Siriako eta Irakeko gerrak jihadisten mobilizazio garrantzitsua eragin zuen: usteen arabera, 120 herrialdeetako 40.000 bolutario baino gehiago (horien artean gutxienez Espainiatik etorritako 237) joan ziren bi herrialde horietan borrokatzera. Horietako gehienak Daesh taldean sartu ziren. Talde horrek ospe handia irabazi zuen erradikalenen aurrean, mendean zuten lurralde-eremu zabalagatik eta proselitismo- eta propaganda-maila handia lortzeko gaitasunagatik, gizarte-sareak eta ikus-entzunezko baliabideak eraginkortasunez erabiltzearen ondorio.

Daesh bezalako taldeek eragindako erakarpenaren ondorioz, Europan bizi ziren bost mila lagun baino gehiago Ekialde Ertainera joan ziren borrokatzera, eta, gainera, erakarpen horrek atentatu ugari eragin ditu Europako herrialdeetan. Batzuetan, Daesheko edo Al Qaeda zelula antolatutako izan dira, eta, beste batzuetan, banakako aktoreak, talde horietan orga-

nikoki kokatu gabeak, baina euren doktrinak inspiratuak eta euren aparatuek azken urteetan eman dituzten kontsignek sustatuak, edozein jarraitzailek bizi den herrialdean atentatu egin dezan. Adibidez, Parisko Charlie Hebdo aldizkariaren aurkako atentatua, 2015eko urtarrilean, Arabiar Penintsulako Al-Qaeda zelula batek egin zuen; urte bereko azaroaren 13ko atentatuak, Parisen baita ere, 130 hildakorekin, Daesheko zelula batek egin zituen; 2017ko Bartzelonako eta Cambrilseko atentatuak, berriz, Daeshak inspiratutako jihadistak erradikalen talde batek burutu zituen.

Talde jihadisten jarraitzaileen mobilizazio handiak segurtasunarekiko kezka handia eragin zuen Europako gobernuetan. Lehenik eta behin, Europan bizi ziren herritarrak Ekialde Ertainera borrokara joatea eragotzi nahi izan zen. Gobernu guztiek neurriak jarri zituzten martxan erradikalizazio jihadistari aurrea hartzeko eta Europan jarduten zuten sare terroristak desegiteko. Daesha garaitua izaten eta kontrolatzen zuten eremua galtzen hasi zenean, gobernuak adi egon ziren Siria edo Irakera joandako borrokalarien itzulera saihesteko, terrorista trebatu eta eskarmentudunen itzulera segurtasun arrisku berri bat dakarrelako.

Datu batzuek agerian uzten dute terrorismoak oraintsu izan duen eragina: 1994. eta 2016. urteen artean, biak barne, 115.709 istilu terrorista zenbatu ziren mundu osoan, Luis de la Cortek lehen aipatutako argitalpenean jasotzen duenez. Ekialde Hurbilak eta Ipar Afrikak ekintza terrorista guztien %34a metatzen dute; ondoren datoz Hego Asia (% 31,7), Saharaz hegoaldeko Afrika (% 17,7) eta Asiako hego-ekialdea (% 8). Europa mendebaldeak erasoaren % 4,35a baino ez du biltzen.

Indarkeria jihadistak 1.703 europar hil ditu 2000 eta 2018 urteen artean, "Terrorismoaren liburu zuri-beltza Europan" lanean jasotako datuen arabera. Hildakoen zerrenda horretan, 2004ko martxoaren 11ko atentatuaren ondorioz Madrilan izandakoak sartu behar dira. 192 pertsona hil ziren bonba horiekin, eta egun batzuk geroago trenen aurkako atentatuaren egileek aktibatutako beste lehergailu batek hil zuen polizia-aren kasua gehitu behar zaio kopuru horri. M-11 da, oraindik ere, Europako lurraldean hildako gehien utzi dituen ekintza terrorista. Hain handia izan zen eragina, ezen EBk martxoaren 11 izendatu baitzuen Biktimen Europako Eguna<sup>3</sup>.

Terrorismo jihadistak dozenaka mila biktima eragin dituela aipatzen denean, ez da ahaztu behar gehienak erlijio islamiarreko herrialde askotan bizi ziren herritar musulmanak zirela. Terrorismo mota horrek eragindako biktimen ehuneko laurogei eta ehuneko 90 artean musulmanak dira.



<sup>3</sup> Terrorismoa Espainian DBHko 4. mailako Geografia eta Historia eta Batxilergoko 2. mailako Espainiako Historia unitate didaktikoetan lantzen da. Biak daude eskuragarri hemen: <http://www.memorialvt.com/publicaciones/#unidades>



#### 4. JARDUERA

### ESPAINIAR BAT GHAZALA GARDENS HOTELEKO LEHERKETAN

2005eko uztailaren 23an Egiptoko Sharm el Sheij herrian izandako atentatueta zauritu zuten Tomás Fragaren testigantza irakurtzea proposatzen dizuegu. Horrela, helburu hauek lortu nahi ditugu:

**Muturreko indarkeria baten biktima izateak zer dakarren hausnartzea, terrorismo jihadistaren kasuan bezala.**

**Indarkeriaren erabilera maltzurri eta biktimengan eragiten duen minari buruz eztabaidatzea.**



**Biktinekiko enpatia jarrera sustatzea, bai atentatu honen biktinekiko, bai antzeko beste batzuekiko: Parisko Bataclan aretoarekiko, Bruselan edo Nizan gertatutuekiko, M-11n Madrilen gertatuekiko edo Bartzelonako eta Cambrilseko atentatuekiko.**

**Tomás Fragaren kasutik abiatuta, eztabaida eta iritzi-trukea sortzea ikasgelan terrorismoaren ondorioei buruz eta ekintza hori egiteko gai izan zenari inokulatu behar izan zitzaion gorrotoari buruz, bere herriaren eta fedearen ustezko askapenaren aitzakian babestuta. Era horretan, kontrajar dezagun terrorismo orok elikatzen duen gorrotoa eta biktinek mendekua hartzeari egiten dioten ukoa eta berme guztiak dituen justiziarengan duten konfiantza. Azken batean, hor datza ekintza terroristak borrokatu nahi duen demokrazien erresistentzia gaitasuna.**

*13. irudia. Ehunka langile manifestazioa egiten ari dira Sharm el Sheijeko (Egipto) Ghazala Gardens hotelaren atarian, terrorismoaren aurka protesta eginez, gune turistiko horretan gutxienez 90 pertsona hil eta 150 baino gehiago zauritu zituen bonba-erasoak izan eta egun bat geroago (2005/07/24). Argazkia: Khaled El-Fiqi, EFE.*

"Gutxi gorabehera goizeko ordu bata eta hogeian, Ghazala Gardens hotelaren alboko kale batean, Sharm el Sheij etorbide nagusian aparkatutako nire ibilgailuaren bila nindoala, hoteleko aparkalekutik pasatzen ari ginela, justu atearen aurretik, lehergailuz betetako ibilgailu batek haren kontra jo, eta zamak eztanda egin zuen. Hamar bat metrora nengoen... Kalearen beste aldean esnatu nintzen, eta bi pertsonak lagundu zidaten altxatzen, eta ibilgailu batean eraman ninduten hiriko ospitalera. Geroko xehetasunak, operazioak, osatzea eta abar aurreztuko ditut, bai Egipton eta bai Espainian, harira ez datozelako. Nahiago dut beste une batzuekin geratu. Mugako egoera batean, batzuen gizatasun eskasaren erakusgarri, beste askok beren onena eman zuten gehien behar zutenen alde, eta beren beldur guztiak alboratu zituzten. Gogoan ditut ospitalera eraman ninduten pertsonak. Hirian zegoen kaosari aurre egin, eta ospitalera sartzea lortu zuten nirekin egoteko. Batzuetan beste ezer baino garrantzitsuagoa den zerbait egin zuten: ni lagundu, bakarrik senti ez nendin. Gogoan dut, halaber, hegazkin militar batean eraman nindutela Kairora, beste zauritu askorekin batera. Pertsona batek, ez dakit nor den eta ez dut uste inoiz jakingo dudarik, eskua hankan jarri zidan hegaldian zehar lasaitzeko eta baretzeko... Nire gurasoak, ahizpa, enpresa, osaba-izebak, aitona-amonak, lagunak gogoratzen ditut... Jiménez Díaz Fundazioa Ospitaleko jende guztia, beren onena eman baitzuten ni sendatzeko, bai medikuki bai gizatasun aldetik. Gogoan ditut, azken batean, jada nire bizitzaren parte ziren edo parte izaten hasi ziren pertsona asko, eta ordutik aurrera ere hala jarraitzen dute. Eta zorioneko sentitzen naiz, bizitza egokitu zitzaidan zorigaitzaren barruan, nire inguruan hainbeste ontasunez eta maitasunez inguratuta egoteagatik... 2006ko uztailearen 27an, atentatua gertatu eta urtebete eta lau egunera, Sharm el Sheijera itzuli nintzen... Gogoan dut jada desagertua zegoen hotelaren ondotik pasa nintzela... Ez nuen berriro ez beldurrik, ezta gorrotorik ere sentitu, baizik eta bakea neure buruarekin, eta horixe zen behar nuena. Zirkulua itxita zegoen"<sup>4</sup>.

Lehenik eta behin, irakasleak Tomásen testigantza testuinguruan kokatuko du. Horretarako, urte haien errepasso historikoa egingo du, eta Sharm el Sheijeko atentatua zer egoeratan gertatu zen gogoratuko du.

Bigarrenik, klase-taldea binaka banatuko da. Binaka jarri ondoren, ikasle bakoitzak banaka irakurriko du testua eta ikaskidearekin komentatuko du. Denek ondo ezagutu behar dute testua, eta iritziak partekatuz aztertu.

Hirugarrenik, eztabaidari begira, talde-gelan, iruzkinetan sartu aurretik geure buruari egingo dizkiogun galderak honako hauek izango dira: ba al dago alderik atentatu honen eta justifikazio islamistako terrorismoak egindako beste batzuen artean? Ba al dago alderik talde terrorista jihadisten eta beste talde terrorista batzuen pentsamenduaren eta ekintzaren artean? Nola ikusten duzue Tomásen jokabidea? Zuen ustez, terrorismoak kolpatuko bazintuzte, antzeko jarrera izango zenukete?

Azkenik, azken ondorioak aurkeztuko dira, eta modu digitalean, paperean edo nahi den formatuan bil daitezke.

<sup>4</sup> López Romon (2018).



MATERIALAK

LANTZEKO

ORIENTABIDEAK



## GAIA

Mundu Garaikidearen Historia. 1. Batxilergoa.

## CURRICULUM OFIZIALAREKIKO LOTURA

Unitate didaktiko honetako edukiak 10. blokearekin lotzen dira (Egungo mundua ikuspegi historiko batetik).

1105/2014 Errege Dekretua, abenduaren 26koa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko oinarrizko curriculumaz ezartzen duena (BOE, 2015eko urtarrilaren 3koa).

## DENBORALIZAZIOA

1105/2014 Errege Dekretuak ezartzen duenaren arabera, "Historiak gizarteak aztertzen ditu denboran zehar, irizpide kronologiko bati jarraituz"; beraz, unitate hau ikasturtearen azken hiruhilekoan garatu beharko da.

Gutziz garatzeko, 4 saio egin daitezke, baina, irakaslearen iritziz, saio bakarra aukera daiteke.

## HELBURUAK

Oro har, 25. Artikuluan daude lortu beharreko helburuak. Helburuak. Dekretuak ezartzen duenez, Batxilergoak lagunduko du ikasleengan herritartasun demokratikoa ikuspegi orokor batetik gauzatzeko eta kontzientzia zibiko arduratsua lortzeko gaitasunak garatzen, Espainiako Konstituzioaren balioetan eta giza eskubideetan inspiratuta, gizarte justu eta ekitatibo bat eraikitzeko erantzunkidetasuna sustatze aldera.



Giza eskubideei, terrorismoari eta haren biktimei buruzko proposamen didaktiko hori hiruzpalau edo bost lan-saiotan gara daiteke DBHko 4. mailako ikasleekin, Balio Etikoen arloan. Horretarako, kontuan hartu dira indarrean dauden curriculum-gidalerroak eta hainbat gogoeta eta orientabide. Oso modu berezian eta laburtuan, lan honetan zehar honako hauek lortu nahi izan dira:

Terrorismoari buruzko definizioak eta haren ezaugarri nagusiak ezagutzea.

Terrorismoari buruzko definizioak eta haren ezaugarri nagusiak ezagutzea.

Terrorismo globalaren sorrera identifikatzea.

Arabiaren udaberriaren ondoren jehadismoa ezagutzea.

Terrorismoari buruzko iritzi kritikoa eraikitzea, mundu-mailako fenomeno gisa, historia eta sortzen eta garatzen den testuinguru sozial, politiko eta kulturala ezagututa.

## EDUKIAK

Kontuan hartu diren 10. blokeko (Gaur egungo mundua ikuspegi historiko batetik) edukiak hauek dira:

Berlingo harresiaren erorketa eta New Yorkeko atentatuak: globalizazioa eta komunikabideak. Mehatxu terrorista mundu globalizatu batean. Eragin zientifikoa eta teknologikoa. Europa: erronka eta batasuna. Gizarte iparramerikarraren ezaugarri garantzitsuak XXI. mendearen hasieran, 2001eko 9/11ko atentatuen ondoren.

Modu zehatzagoan, honako hauek landuko dira:

Sarrera: Zer da terrorismoa?

Terrorismoaren lau boladak.

Terrorismo globalaren sorrera.

Jehadismoa Arabiar Udaberriaren ondoren.

## FUNTSEZKO GAITASUNAK

Unitate honekin garatuko diren funtsezko gaitasunak honako hauek dira:

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna, jarduerak egiteko ezinbestekoa izango baita ulermenezko irakurketa, testuak sortzeko gaitasuna eta ahozko adierazpen egokia.

Gaitasun digitala, informazio- eta komunikazio-baliabide teknologikoak erabili beharko baitira beste jarduera batzuk osatzeko.

Gaitasun sozial eta zibikoa, ikasleak biktimaren lekuan jar daitezten eta bizikidetzak baketsuaren garrantzia uler dezaten, baita demokrazia, justizia, berdintasuna, herritartasuna eta giza eskubideak kontzeptuak ere.

## BALIABIDEAK

Unitate didaktiko hau garatzeko, ezinbestekoa izango da proiektzio-kanoi bat eta bozgorailuak dituen gela bat izatea. Testuekin lan egiteko, fotokopiak ematea komeni da, baina testuak proiektatu eta ozen irakur daitezke, eta proiektatutako testuarekin lan egin daiteke ere. Horrelako ikasgelarik ez badago, saioak informatika-gelan egitea gomendatzen da, edo, bestela, Eskola 2.0 motako ordenagailu eramangarriak erabiltzea, ikastetxean halakorik izanez gero.

## IKASKUNTZA-ESTANDARRAK

Abenduaren 26ko 1105/2014 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, unitate didaktiko honi dagokion ikaskuntza-estandarra, 10. bloketik (Gaur egungo mundua ikuspegi historiko batetik) aterata, honako hau da:

2.1. Bilaketa gidatu bat egin Interneten mehatxu terroristari buruz, hura sostengatzen duten erakundeei buruz, ekintza garrantzitsuenei buruz (New York I-11, Madril M-11, Londres U-7, etab.), haien sinboloei eta gizartean dituzten ondorioei buruz (mehatxatutako herritarrak, biktimen elkarreak, gatazketako bitartekaritza, etab.), eta aztertu eta jakinarazi informazio garrantzitsuena.

Ikaskuntza-estandar hau hainbat adierazletan banatuko da, edukien banaketaren arabera, eta, aldi berean, errubrika sinple batean txertatuta egongo dira, ebaluazioa errazteko.



**SARRERA: ZER DA TERRORISMOA?**

- a. Terrorismoa definitzen du, baina ez daki bere inplikazioak aztertzen munduko fenomeno gisa.
- b. Behar bezala azaltzen ditu terrorismoaren definizio guztiak, munduko fenomeno gisa, baita harrn ezaugarri nagusiak ere.
- c. Terrorismoari buruzko iritzi kritikoa eraikitzen du, munduko fenomeno gisa, historiaren eta hura sortzen eta garatzen den testuinguru sozial, politiko eta kulturalaren ezagutzatik.

**TERRORISMOAREN LAU BOLADAK**

- a. Ezagutzen ditu terrorismoaren lau boladak.
- b. Terrorismoaren lau bolada horiek behar bezala identifikatzen eta azaltzen ditu.
- c. Terrorismoaren bolada bakoitza hura sortu zeneko testuinguru politikoarekin lotzen du modu osoan; haren orientazio ideologiko nagusia, protagonista izan ziren erakundeak; atentatu gehien jasan zituzten tokiak, taktika nagusiak eta helburuak.

**TERRORISMO GLOBALAREN SORRERA**

- a. Ezagutzen du terrorismo globalaren sorrera.
- b. XXI. mendeko terrorismoaren fase batzuk identifikatzen ditu.
- c. Jihadismo globalaren faseak terrorismo horren erakundeekin lotzen ditu modu osoan, bai eta sorreratik gaur egunera arte egin zituzten atentatuak ere.

**JIHADISMOA ARABIA UDABERRIAREN ONDOREN**

- a. Arabiar Udaberriaren ondorengo jihadismoa ezagutzen du.
- b. Jihadismoaren ekintza terrorista batzuk identifikatzen ditu Arabiar Udaberritik gaur egunera arte.
- c. Erakunde jihadistak modu osoan erlazionatzen ditu, baita Arabiar Udaberritik gaur egunera arte egin zituzten atentatuak ere, planteamendu kritiko batetik.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK ETA -TRESNAK

### EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ikasleek honako hauek egin beharko dituzte:

Mehatxu terroristak (jihadismoa, etab.) eguneroko bizitzan dituen ondorioak deskribatu, baita haren ezaugarriak azaldu ere.

Europar Batasunak gaur egungo munduan dituen erronkak laburbildu, eta beste zonalde batzuen aldean eremu geopolitiko bateratu gisa agertzeko dituen arazoak bereizi.

Mundu islamikoak gaur egun duen bilakaera deskribatu, eta haren ezaugarri ekonomiko, politiko, erlijioso eta sozialak laburbildu.

Egungo mundua zehazten duten gertaerak azaltzeko, hainbat iturritatik (bibliografikoak, Internet) informazioa lortu eta hautatu.

### EBALUAZIO-PROZEDURAK ETA TRESNAK

Testuen inguruko jarduerak eta interneteko ikerketa euren koadernoan egin beharko dituzte ikasleek. Lau saioretan gelako ikasle guztiek aktiboki parte hartu beharko dute. Irakasleak ikaslearen koadernoan ebaluatu beharko ditu jarduerak, ikaskuntza-estandarretarako ezarritako errubriken arabera. Gainera, idatziz jaso beharko ditu hala ikasle bakoitzaren esku-hartzeak nola esku-hartze horiek unean-unean landutako gaien arabera duten egokitasuna.

Kuantifikazioa ebaluaziorako transposizio numeriko bat egitearen emaitza da, baina ikasleek honako ikaskuntza hau berriki dezentatela azpimarratuko da: a) Unitate didaktiko honetan hautatutako eduki-blokeen eduki historikoa ("Berlingo harresiaren erorketa eta New Yorkeko atentatuak: globalizazioa eta komunikabideak. Mehatxu terroristak mundu globalizatu batean. Eragin zientifikoa eta teknologikoa. Europa: erronka eta batasuna. Gizarte iparramerikarraren ezaugarri garrantzitsuak XXI. mendearen hasieran, 2001eko 9/11ko atentatuen ondoren") eta b) azterlan honek eman dizkien estrategia historikoetatik abiatuta, garatzeko gai izan diren diskurtso kritikoari buruzkoak.

Kuantifikazioari dagokionez, errubriken zenbakizko balioa honako hau izango litzateke:

Ikasle bakoitzak lortzen duen errubriken arabera, adierazitako zenbakia esleituko zaio; hau da, zereginak betetzen ez dituenak eta errubriken gutxienezko lortzen ez duenak 1 jasoko du. Balio guztiak errubriki esleitu ondoren, batura egingo da. Gai bakoitzaren kalifikazioa 12tik 24ra bitartekoa da, eta kalifikaziorik handiena 24koa izango da. 10en arabera kalifikazioa lortzeko, lortutako zenbakia 2,4 zenbakiarekin zatituko dugu.



# ERREFERENTZIAK



The Fabulous Countess

A Fabulous Success Story

found earlier. Contrary to what has been written on the subject, the difference that ended three more years of friendly relations started with a favor that Omasis rendered to his good friend Esteban.

happened to arrange that Omasis would no longer be the major stockholder if he retained this offer. Omasis had no choice but to accept.

was not the kind of man whom after somebody had never, after a couple of months, Omasis offered to sell the company for \$4,000,000 and

some policemen were on hand to preserve order. Omasis went quiet, her in writing, and without waiting any more time he went straight from the car to the road, not stopping to speak to anyone.

him. A man once who was one after their ship had been wrecked. One of them died at the stroke of the boat so that he was in the water. In the end, with the result that he and water to last until we it he'd have died, apparently, "we couldn't do it."

what their verdict on it would be. I know that Uncle Axel had prepared the only practical solution; and I know, too, its impossibility meant recognizing that nothing would be done.

to see Miguel that evening. She had taken some time after to wear and had fastened it on one of the beds that had liked to much. It was very plain, in navy

of the next few months we heard scarcely anything of the damaged state from her sister or through the west

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

One of the consequences, however, was a more serious trouble. Quite when it was to marry one another, neither of them was in a position to do so, and the law of the land

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

to be called by Esteban. Right now, he was on his feet. He thought very on Omasis' and the Axels

draw unconsciously. "Of hooded crosses. They build down there and it's a good opportunity to get rid of them. We don't allow the crosses to propagate their race if we can possibly avoid it."

"I wish I could see Mendicelli," said Estrella excitedly. "I'd like to have a look at him." "They'd be better off if they were killed," said Estrella. "They'd be better off if they were killed," said Estrella.

"All this is yours—" she made a comprehensive gesture with her hand. "I haven't explained you a hundredth part of it yet."

"You've plenty of time," he spoke in his customary clipped manner, but today there was a certain relaxing of his face and could emanate. For the first time she

"I should advise you not to do anything foolish," he said calmly. "You will be abandoned a servant and when you're in a position to do so, you'll be in a position to do so."

"I'm rather stupid," she said. "I don't know what to do. I'm rather stupid," she said. "I don't know what to do. I'm rather stupid," she said.

"I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said.

"I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said.

"I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said.

"I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said.

"I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said.

"I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said. "I don't think it's a very good idea," she said.

"The saloon are in the street," Robbie looked at them. "They jump up," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."

"They're in our room," said Estrella. "You should go down."





Ballesteros, M. A. (2016): *Yihadismo*. Madril: La Huerta Grande.

De la Corte, L. (2018): «La Yihad de Europa. Desarrollo e impacto del terrorismo yihadista en los países de la Unión Europea (1994-2017)», *Terrorismoaren Biktimen Oroimen Zentroaren txostena* (4), 10-50.

Fontecha, R. (2004): «Incidentes y atentados de terrorismo islamista relacionados con España. 1984-2004», F. Reinares eta A. Elorza (edk.): *El nuevo terrorismo islamista*. Del 11-S al 11-M. Madril: Temas de Hoy, 295-312 or..

González Calleja, E. (2012): *El laboratorio del miedo: una historia general del terrorismo: de los sicarios a Al Qa'ida*. Bartzelona: Crítica.

López Romo, R. (2018): *Memorias del terrorismo en España*. Madril: Los Libros de la Catarata.

Pagazaurtundua, M. (2018): *El libro blanco y negro del terrorismo en Europa*. Brusela: Europako Parlamentua. Grupo ALDE.

Pujolas, P., Lago, J. R., Riera, G., Pedragosa, O. eta Soldevilla, J. (2008): *Algunos recursos didácticos para el aula cooperativa*. Vic: UVIC.

Reinares, F. (2003): *Terrorismo global*. Madril: Taurus.

Reinares, F. (25 de marzo de 2012). *Coreografía Global del Terrorismo*. Madril: ARI. Real Instituto Elcano, 4. or..

MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIRAKO  
UNITATE DIDAKTIKOA

**1. BATXILERGOA**

